

ESLEIPENAK PRESTATZEKO DEIALDIA GAUR BERTAN JASO DUGU

Kaixo, lankide,

Enpresak esleipen prozesuaren nondik norakoen proposamena bidali berri digu. Ekainaren 20ko hauteskunde eguna baino lehenago Enpresari esleipen prozesua habian jartzeko eskatu genion, nahikoa denborarekin. Harrezkero, **hainbatetan presionatu** dugu deialdia egin eta proposamenak luzatzeko.

Beste behin, enpresak **arduragabekeriaz** jokatu du eta langilegoaren aurrean **utzikeria** erakutsi du, prozesua ahalik eta gehien berandutuz eta luzatuz.

Honakoa da bidali digun **proposamena**:

- **Uztailak 13**: sindikatuekin lehenengo bilera.
- **Uztailak 18**: deialdia argitaratu.
- **Uztailak 19**: ukoak eta borondatezko eskaerak aurkeztu.
- **Uztailak 21**: behin-behineko zerrendak argitaratu (hautagaiak zein lanpostuak).
- **Uztailak 22**: behin-behineko zerrendari erreklamazio eguna.
- **Uztailak 27**: behin-betiko zerrendak argitaratu (hautagaiak zein lanpostuak).
- **Uztailak 28**: esleipen eguna.

Proposamen hau Enpresaren **ardura eta planifikazio falta** interesatuaren ondorio bat da, gure ustez. **steilasetik** ahalegin guztiak egingo ditugu hau aldatu eta prozesua uztailaren 22an bukatzeko. Lan honetan ere sindikatu guztien indarren batura lortzen saiatuko gara.

Informatuta mantenduko zaituztegu. Edozein zalantza baldin baduzue, badakizue non gauden.

